Several small, solid blue triangles of varying sizes are scattered on the left side of the page, some pointing right and some pointing left, adding a dynamic, geometric feel to the layout.

ELKARRIZKETA ESPARRUA

GAURDAINOKO BILANA

2017ko UZTAILA - 2019ko URRIA



**1. Elgarritzeta esparrua****› p.3****2. Egitarauaren bilakaera****› p.4****3. Jurisdikzioa eta testuinguru politikoa****› p. 11****4. Lan eskema: triangulazioa eta gizarte zibilaren mobilizazioa****› p.17****5. Erreferentzia kronologikoak****› p.19****6. Ondorioa****› P.22****Gehigarriak****› p.23**

2019ko urrian gira. Donostian 2011ko urriaren 17an Aieteko Nazioarteko Konferentzia iragan zenetik zortzi urte iragan dira. Konferentzia honetatik hiru egunetara ETak behin-betiko eta aldebakarreko su etena iragarri zuen eta denen artean eraiki beharreko bake prozesuaren ardatz nagusiak pausatu zituen arrakastarekin, frantses eta espainol estatuen inplikaziorik gabe izan bazen ere.

Beti molde aldebakarrean, eta urratsez urrats, aitzinamendu handiak eginak izan dira. 2017ko apirilaren 8an ETaren armagabetzea izan zen lehena, jendarte zibilaren sostengu aktiboarekin, Bakearen Artisauak egin deiari erantzunez antolatua. Ondotik, ETaren disoluzio edo desgertzea, Genevan maiatzaren 4an ofizialki eta biharamunean Kanbon aktatua izan zena.

Testuinguru honetan, 2017ko uztailaren 10ean 22 pertsonen ostaturako ordezkari bat xutik ezarri zen (mota guzietako hautetsiak, presoaren sostengurako elkarteak, Bakearen Artisauetako ordezkariak eta Bake Bidea) Ipar Euskal Herrian. Ordezkaritza honen xedea : azken hamarkadetan salbuespenezko neurriak sufritzen duten euskal presoek zuzenbide arrunta aplikatzeko borrokan estatu frantsesa inplikaraztea.

Era honetan, justizia ministerioarekin egiazko eztabaida eremu bat ireki da eta Euskal Herrira presoaren lehen hurbiltzeak (Mont-de-Marsan eta Lannemezan-era) iragarri ziren 2018ko urtarri-lean, lekutze horretan Estatuaren esku-hartzea ezinbesteko eta erabakigarria zelarik.

Zertan gaude beraz ia beste bi urte berantago? Lortu duguna eta lortzeko duguna neurtzeko garaia heldua zaigu. Nahitaez beste etapa batean sartuko garela jakinez, bide erdiko balantze baten egiteko garaia da.



1.

Elkarriketa esparrua

Euskal Herriko delegazioa eta Justizia ministerioaren arteko elkarriketa esparrua.

Uztailaren 10-eko delegaziotik* ateratako delegazioa :

ANAIZ FUNOSAS, "Bake Bidea – Le chemin de la paix" antolakundeko Lehendakaria.

JEAN-RENÉ ETCHEGARAY, Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakaria, Baionako auzapeza.

MICHEL BERHOCOIRIGOIN, Bakegilea.

MICHEL TUBIANA, Frantziako Giza Eskubideen Ligako ohorezko Lehendakaria.

SERGE PORTELI, Ohorezko Magistratua, Versailleko dei gortean.

VINCENT BRU, Pirinio Atlantikoetako Diputatua.

Egitaraua :

Konponbide orokor eta definitibo baten perspektiban, lehen etapa, euskal presoei aplikatzen zaizkien salbuespenezko neurriekin bukatzea izanen da.

› Baionako Adierazpenako puntuak * :

- Hurbilketa eta batuketa
- "DPS" estatutua kentzea
- Baldintzapeko askatasunak
- Eri diren presoak

Metodoa :

› Elkarriketa egitarauaren eta estatu frantsesaren eskubidearen baitan eraikiko da :

- Justizia ministerioarekin.
- Sentsibiltate desberdinetako hautetsi eta "Bake Bidea" eta "Bakegile"-ak mugimenduekin.
- Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin.

Justizia ministerioak publikoki asumitzen duen elkarriketa da.


*Gehigarriak



2.

Egitarauaren bilakaera

2017ko uztailetik 2019ko urrira.



2017ko uztailaren 10eko erradiografia

69 preso : 58 gizon eta 11 emazte.

21 presondegitan sakabanatuak : gizonak 16 presondegitan eta emazteak 5 presondegitan. Presondegia urrunena Clairveaux, 1000 kilometrotara, eta hurbilena Mont-de-Marsan, 160 kilometrotara.

2 preso beste euskal presoengandik isolatuak dira : Jon Parot Muret-en eta Izaskun Lesaka Fleury-Mérogis-en.

60 urte baino gehiagoko 6 preso.




2019-ko urriaren 1eko erradiografia

38 preso : 30 gizon, 8 emazte.

8 presondegitan sakabanatuak : gizonak 5 presondegitan eta emazteak 3 presondegitan.

2 preso beste euskal presoengandik isolatuak dira : Jakes Esnal (69 urte, St-Martin-de-Ré) eta Josu Urrutikotxea, prebentiboan (68 urte, La Santé).

60 urte baino gehiagoko 8 preso.



› Oharrak :

2 urtez frantses estatuan preso diren euskal presoek kopurua txipitu da, hona azalpen batzuk :

- Hainbat preso espainieratuak izan dira espainiar estatuan duten kondena betetzeko. Azpimarratu behar da espainiar estatuan europar mailako zigoren bateratzea ez dutela aplikatzen, horrek erran nahi du, preso hauentzat frantziar estatuan bete duten kondena ez dela kontutan hartuko eta osoki bete beharko dutela espainiar estatuan duten zigorra.

- Beste batzuk libre gelditu dira frantziar estatuan zigor osoa bete ondoren edo espainieratuak izan eta gero.

- Beste batzuk libre utziak izan dira behin behineko baldintzapean, haien epaiketaren zain.



a)Hurbilketa eta batuketak 3 etapatan

1.mugimendua : 2018ko martxoa - 2018ko ekaina

14 gizon Mont-de-Marsan eta Lannemezan-eko presondegieta lekualdatu dituzte.

Mont-de-Marsan : Aduna Vallinas, Raul² 2018/03/01; BorreroToribio, Asier¹ 2018/04/19; Garro Perez, Zigor 2018/02/26; Urbietak Alkorta, Josu 2018/03/02; Sirvent Auzmendi, Ekaitz 2018/04/11; Iruretagoiena, Luis 2018/05/15; Salaberria, Jon² 2018/03/08; Mendizabal Elezkano, Julen¹ 2018/02/26; Eceiza, Asier 2018/06/14.

Lannemezan : Maiza Artola, Juan Cruz 2018/03/20; Ilundain Iriarte, Alberto¹ 2018/03/20; Garitagoitia Salegi, Iurgi 2018/04/03; Agirregabiria del Barrio, Arkaitz 2018/03/04; Oiharzabal Txapartegi, Asier 2018/06/04.

› Oharrak :

- Joseba Fernandez Muret-era lekualdatu dute (Lekualdatze hori ez da sartzen elkarizketa esparruko kriterioetan).

- Bi preso beste euskal presoengandik isolatuak egon dira aste batzuk : Asier Eceiza Tarascon-en et Asier Oiarzabal Txapartegi St Maur-n.

- Izaskun Lesaka, Fleury Mérogis-en beste euskal presoengandik isolatua da.

- Ugaitz Errazkin Telleria eta Igor Uriarte Lopez de Vicuña, ez dira hurbilduak izanen euro-agindu prozedura batzuegatik; haien kondena bukatu dute Châteauroux-n eta espainiaratuak izan dira.

- Emazterik ez da hurbildua izanen haien egoerari ez delako aterabiderik atzematen. Ez da emazteentzako presondegirik Euskal Herritik hurbil.

¹ espainieratua, beti preso.

² espainieratua eta libre.



2. mugimendua : 2018ko uztaila - 2018ko urria.

10 gizon Mont-de-Marsan eta Lannemezaneko presondegietara lekualdatu dituzte.

Mont-de-Marsan : Martitegi, Jurdan 2018/07/05; Martinez de Bergara, Fermin 2018/09/19; Goieaskoetxea, Ibon 2018/07/10; Etxaburu, Aitzol 2018/07/04; Mero-dio, Zigor² 2018/10/17; Mugica, Ander 2018/09/19; Rubenach, Jon¹ 2018/10/17; Suberbiola, Igor 2018/07/10.

Lannemezan : Bengoa, Asier¹ 2018/07/12 ; Abaunza Martinez, Jabi 2018/07/16.

› Oharrak :

- Lau preso beste euskal presoengandik isolatuak dira: Mikel Carrera (Réau, Mikel Albisuren libratzearen ondorioz) , Jakes Esnal (St-Martin-de-Ré), Aitzol Iriondo (Mou-lins), Garikoitz Aspiazu (Arles)

- Emazterik ez da hurbildua izanen. Ez da emazteentzako presondegirik Euskal Her-ritik hurbil, beraz 3 presondegitan banatuak dira. Emazteak batuko lituzkeen pres-ondegi baten inguruan gogoetatzen hasten da.

- Hilabeteak beste euskal presoetaz isolatua egon ondoren Fleury Mérogis-en, Iza-s-kun Lesaka Reau-ra lekualdatu dute.

3. mugimendua: 2019ko maiatza - 2019ko urria

5 gizon Mont-de-Marsan eta Lannemezaneko presondegietara lekualdatu dituzte.

Mont-de-Marsan : Goienetxea, Xabier 2019/09/10.; Reta, Inaki 2019/10/03.

Lannemezan : Carrera, Mikel 2019/ 05/11; Iriondo, Aitzol 2019/06/06 ; Aspiazu, Garikoitz 2019/07/08.

› Oharrak :

2 preso beste euskal presoengandik isolatuak dira: Jakes Esnal (69 urte St-Martin-de-Ré), Josu Urrutikoetxea (68 urte La Santé).

Epe motzari begira emazteak ez dira hurbilduak izanen baina adostasuna bada Rennes-eko presondegian emazte guziak batzeko azken hauek gogoa baldin ba-dute.



b)DPS* estatusaren kentzeak.

2017 uztailan 36 presoek DPS estatutua zuten.

9 DPS kentze edo ez berriak, 2017ko uztailatik 2018ko maiatzera.

Aguerre, Didier; Borrero Toribio, Asier; Fernandez Iradi, Ibon; Garro Perez, Zigor; Salaberria Sansinenea Jon, Bienzobas Arretxe, Jon; Plaza Fernandez, Itziar; Urbietta Alkorta, Josu; Iruretagoiena Lanz, Luis Ignacio.

16 DPS ez berriak edo zerrendetatik kentzeak 2018ko maiatzetik.

2018ko ekaina : Abaunza Martinez, Xabier; Agirregabiria Del Barrio, Arkaitz ; Barandalla Goni, Oihan; Bengoa Lopez de Armentia, Asier; Bernado Bonada, Marina; Garitagoitia Salegi, Iurgi; Ilundain Iriarte, Alberto; Suberbiola Zumalde, Jurdan; Rubenach Roiz, Jon; Maiza Artola, Jon Gurutz.

2018 uztaila : Goieaskoetxea Arronategi, Ibon.

2019 iraila : Sorzabal Diaz, Iratxe; Aramendi Jaunarena, Alaitz; Esparza Luri Iñaki; Lesaka Arguelles, Izaskun; Oihartzabal Txapartegi, Asier.

**Bereziki Seinalatutako Presoa izateak neurri bereziak ondorioztatzen ditu. Zirkularrek zelden koka-pena aipatzen dute, zaintza guneetatik hurbil izan behar direla ahal den neurrian, aktibitate edo lanerako kandidaturak zehazki aztertu behar direla, edo beren orientazioa lehenetsia zentralerara. Egunerokotasunean, bereziki zainduak dira presentzia deialdietan, miatuak eta lokalak kontrolatuak, bereziki zainduak kanpokoekin lotzen dituzten harremanetan edo zeldatik kanpo egiten dituzten mugimenduetan. Lekualdaketa ere neurri bereziak aplikatzen zaizkie.*



c) Baldintzapeko edo behin behineko baldintzapeko askatasunak eta zigor suspentsioak.

11 baldintzapeko askatasun eskaerak

› 2 ez onartuak

Ion Parot : Kondenen Aplikaziorako Terrorismoaren Kontrako Ganberak, bere 5. eskaera ukatu du 2018ko otsailaren 22an.

Maite Aranalde: Kondenen Aplikaziorako Terrorismoaren Kontrako Ganberak, bere eskaera ukatu du 2018ko uztailearen 3an.

› 5 aztertuak izan ez diren eskaerak (kondena bukaera hurbilegi zelako).

› 4 oraindik aztergai diren eskaerak

Frédéric Haramboure : Kondenen aplikaziorako terrorismoaren kontrako Auzitegiak, bere bigarren eskaera onartu du 2019ko uztailearen 5ean. Parketaren deia zela eta, 2019ko irailaren 5ean, Kondenen Aplikaziorako Terrorismoaren Kontrako Ganberak bere eskaera aztertu du. Erabakia 2019ko urriaren 8an emanen dute.

Jakes Esnal : bigarren eskaera bat egin du 2017ko urriaren 24an, momentuko ez da audientziarik izan.

Lorentxa Beyrie : Kondenen Aplikaziorako Terrorismoaren Kontrako Ganberak, bere hirugarren eskaera onartu du 2019ko uztailearen 18ean. Parketaren deia zela eta, 2019ko irailaren 12ean, Kondenen aplikaziorako terrorismoaren kontrako ganberak bere eskaera aztertu du. Erabakia 2019ko urriaren 15an emanen dute.

Alaitz Areitio : audientzia berri bat antolatu behar da kontseilu konstituzionalean pausaturiko Konstituzio aurreko galderak arrazoia eman diotelako presoari.



2 behin behineko baldintzapeko askatasunak (auziaren zain).

Mikel IRASTORZA 2017/08/08

Mikel Barrios 2018/10/26

2 eritasunagatik egiten diren zigor suspentsio eskaerak.

› 1 onartua.

Oier Gomez : 2017ko apirilaren 26an askatua izan zen, 6 hilabeteko bizi esperantzarekin. Oier 2019ko urtarrilaren 26an zendu da (hezurretako minbizia zuen, Ewing sarkoma).

› 1 raindik aztergai.

Ibon Fernandez Iradi : bigarren eskaera 2018ko apirilean pausatu du. 2019ko irailaren 25an Kondenen aplikaziorako terrorismoaren kontrako Auzitegiak, bere eskaera aztertu du. 2019ko urriaren 30an erabakia emanen du (esklerosiz anizkoitza du).



3.

Jurisdikzioa eta testuinguru politikoa

Instrukzio dosierrak

Bi azken instrukzio dosierrak delituen auzitegira pasa dira. Delituen auzitegira eramateak ez dira inoiz argudiatuak, ez dugu beraz testuinguru politikoa kontutan hartua izan denaren idatzirik.

Behin behineko baldintzapeko askatasunak

2017ko apirilaren 24an, askatasun bat erabakitzen du Askatasunen Epaileak (JLD). Apirilaren 8a momentu historiko bezala izendatzen du eta testuingurua kontutan hartuz, lehen aldiz ihes egiteko eta lege haustea errepikatzeko arriskua kolokan jartzen ditu. Jarrera berresten da 2018ko azaroaren 2an, Dei Gorteak neurria kentzea berresten du beste behin ere, ETAren desagitea eta lege haustearen berritzearen arriskua azpimarratuz.

Akusazioa bertan behera

Instrukzio epaileak akusazio bat bertan behera uzten du 2018ko agorrilan, ETAko kideekin bake prozesuaz hitz egiteko bilera egitea delitua ez dela argudiatuz.



Epaiketak: auzitegien jarrera

2017ko apirilaren 8tik, Delituen Auzitegiko lehen epaiek ez dute aldaketarik erakusten eman dituzten kondenetan. Terrorismoaren Kontrako Ministerio Publikoak aitzineko jarrera bera erakutsi du. Audientzian, nahiz eta erabakiak argudiatuak ez izan, aldaketa bat nabari da Ministerio Publikoaren aldetik. Nahiz eta kondena eskaeretan ez duen aldaketa handirik erakusten, testuinguru politikoa eta emandako aurrera pausuak baikorki baloratzen ditu. Polizia indarretako kide baten hilketa aztertzen zuen epaiketaz aparte, beste hiruek eztabaida interesgarriak sortu dituzte bake prozesuaren aitzina-menduaz. Audientzia Gortea osatzen zuten magistratuek interesa erakutsi dute eta erabakiak nahiko onak izan dira azken hiru kasuetan.

Pariseko Auzitegi Administratiboa

› Hurbilketak

Auzitegi Administratiboak (TA) eta Helegite Administratiboen Ganbarak (CAA) jarrera oso itxia erakutsi dute, Bereziki Seinalatutako Presoak (DPS) izendatzen segituz edo ur-runean kartzelatuz. Testuinguruaren bilakaeraren inguruko argudioak ez dira kontutan hartzen, ezezkoen argudiatzeak estereotipatuak dira. Adibidetzat, 2016ko azaroaren 29ko erabaki baten zati bat :

"kontutan hartuz lehenik, helegindako erabakiak, Giza Eskubide eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmenak 8.artikuluaren bidez bermatutako bizitza pribatu eta familiarren errespetuaren eskubidea zalantzan jartzen duela mantendu ezker, X jaunak argudiatzen duelarik Clairvauxko espetxean egoteak (Espainian)... bizi den bere familiatik 1000 baino kilometro gehiagora urrunduta mantentzen duela eta batez ere, gaixo duen ama-rengandik, zeinak ezin dion bisita egin bere osasun egoera dela eta; eskaera egiten duen pertsona ezkongabea zela erabakia helegin zen egunean, baieztatzen duelarik bere bikotearekin 2016ko martxoaren 4an ezkondu zela eta seme-alabarik ez dutela; dossierrean dauden elementuen arabera, gertuko bisitak erregulariki jasotzen dituela eta nagusiki bere bikotearekin; baldintza horietan, ez dela ondorioztatzen dossierreko elementuetatik, helegindako erabakiak, Giza Eskubide eta Oinarrizko Askatasunen babeserako Europako Hitzarmenak 8. artikulua zehaztutako eta X jaunak aurreratzen duen eskubideari, espetxe-ratzeak berak suposatzen dituen mugapenetatik haratago doan kalterik eragiten dionik".



Bi salbuespen bakarrik Parisko Auzitegi Administrazioarenak dira, zeinetan, ihes egiteko arriskua perspektiba ezartzen den, testuinguru politikoarekin batera, irizpide honek ezin duela familiarekiko urruntasuna justifikatu argudiatzeko.

Honela, azken erabakiak dio : *“eztabaidan den erabakiaren izaerak zaildu egiten du X jaunak espetxean bizitza familiarra mantentzeko duen eskubidearen egingarritasuna, ordena eta segurtasunaren mantenu edo, batez ere erabilgarri diren lekuen terminotan, efektiboan kudeaketak berezkoak dituen mugapenei dagokien inolako arrazoiek ez duelarik justifikatzen”.*

Magistratuek, 68 urteko amak, bikoteak eta alabek, etxetik duten 900 kilometroko distantziari egiten diote erreferentzia, esfortzu fisiko, ekonomiko eta psikologiko handiei egin behar dietela aurre. ETAk borroka armatua bertan behera uztea ere aipatzen du, Lannemezanen diren toki libreekin eta egoitza horretan jadanik hainbat euskaldun direla gehituz, erabakia justifikatzeko.

› Bereziki Seinalatutako Presoak (DPS)

Bereziki Seinalatutako Presoen kasuan, 2017ko uztaila aitzin, 2017ko urriaren 5ean harturiko erabaki baten argudio beretan ginen :

“Euskal mugimendu terroristako kide dela eta, zeina nagusiki Asisetako Gorte Bereziki gaizkile elkarteko kide izateagatik ezarri dion 20 urteko espetxe zigorrak frogatzen duen; kontutan hartuz, egun oraindik indarrean dagoen bere konpromisoa, espetxean antolatutako eta mugimendu terroristak euskaldunarekin lotura duten protesta edo aldarrikatze mugimenduetan bere partehartzeagatik oinarritua dagoena eta, bere espetxe kideak batzeko jarrera eta bozeramaile gisa kokatzeko gaitasuna, antolakunde terroristako aparatu politikoan betetzen zituen arduren garrantzia konfirmatzen duena; Ihesaldi saiakera baten ikuspegitik, mugimendu independentistaren baitan duen partehartze mailaren ondorioz, kanpotik jaso ahalko lukeen babesak kontutan hartuz; aurrekoarekin lotuta, ihesaldi batek eragingo lukeen ordena publikoaren nahasmendu larria eta frantses lurraldean egoteko behin betiko debekua kontutan hartuz.”

2019ko iraila 6 presorentzat.

Bilakaera azpimarragarria ageri da azken asteetan, azken erabakiek Bereziki Seinalatutako Presoen zerrendatik kentzea agintzen baitute, ondoko motibazioan oinarrituz : *«2018ko maiatzaren 3an ETA desegin zela kontutan harturik eta bake prozesu iraunkor baten alde engaiatu dela ikusirik (...) interesatua zerrendan sartu eta mantentzearen arrazoiak desagertu direla eta kartzelaldi garaian ez dela gertakaririk izan kontutan harturik».*



Konstituzio aurreko galdera (QPC)

Kontseilu konstituzionalaren 2019-09-06ko Erabakia: 730-2-1 artikuluko 5. pasarteko disposizioak bertan behera uzten ditu terrorismo alorrean baldintzapeko askatasuna lortu aurretik burutu beharreko froga garaiaren obligazioari buruzkoak. Abrogazioak 2020ko uztailaren 1ean sortuko du efektua. Gobernuak lege aldaketak 2020ko uda aurretik burutu beharko ditu, dekretu bidez edo legearen errebisio bidez. Erabaki honek Hego Euskal Herriko presoentzat aukera berriak zabaltzen ditu.

Kondenen aplikaziorako terrorismoaren kontrako Auzitegia

Kondenen aplikaziorako terrorismoaren kontrako Auzitegiak (TAPAT) testuinguruaren bilakaera erabiltzen du argumentu gisa, berrerortze arrisku ahula ondorioztatzeko eta baldintzapeko askatasuna onartzen du.

2017ko urriaren 27an : Ion PAROTentzat, Euskal Herriko egoera politikoa aipatzen da baldintzapeko askatasuna argudiatzeko elementu gisa, bi urteko askatasun mugatua eta baldintza oso zorrotzak aurreikusiz.

2019ko uztailaren 5ean : Frédéric HARABOUREntzat, baldintzapeko askatasuna, 18 hilabeteko zaintza elektronikoarekin.

2019ko uztailaren 17an : Lorentxa BEYRIErentzat, baldintzapeko askatasuna, 18 hilabeteko zaintza elektronikoarekin eta proba epearen urte bateko luzapena kondena bukatzearekin.

Kondenen aplikaziorako terrorismoaren kontrako epaitegiak (TAPAT) askatasuna onartzen du baina baldintza oso zorrotzetan. Lorentxa BEYRIEren kasua oso adierazgarria da, bi urte besterik ez baitzaizkio gelditzen kondena bukatzeko.

Kondenen Aplikaziorako Terrorismoaren Kontrako Ganbera

Inolako aldaketarik ez da dei auzian erabakitzen duten Ministerio Publiko eta magistratu enaldetik. Kasu hurbilena : 2018ko otsailaren 22ko erabakia, Ion PAROTen kasuan. Baldintzapeko askatasuna onartu zioten betebeharrak biziki zorrotzekin, Euskal Herrikan kanpo eraikitako proiektu baten inguruan, baina ondotik, dei auzian ukatu zioten.



28 urteko kartzelaldiaren ondotik, ezezkoa hiru argudiotan oinarritzen da :

- ETako kide historiko gisa, bere askatasunak herriko ordenan nahasmenduak sor ditzakeela aipatzen da;
- Bere askatzeak ez lituzkeela biktimen interesak behar bezala kontutan hartuko;
- ETA ez dela oraindik desegina eta hala ezagutua Espainia eta Frantziarengandik eta eragiteko gaitasuna duela oraindik.

Gaur egun, Kondenen Aplikaziorako Terrorismoaren Kontrako Auzitegiak (TAPAT) onartu dituen baldintzapeko bi askatasun ditugu : bat, kartzelaldiko 30. urtean sartu den pertsona batena, bestea, 2001etik preso den eta bi urte gelditzen zaizkion pertsona batena.

Ministerio Publikoak suspentsio helegitea pausatu du gainera. Helegite horren ondorioz, erabakia ezin da gauzatu nahiz eta baldintzapeko askatasunerako neurriei, 18 hilabeteko eskumuturrekoaren entsegu bat gehitzen zaien.



Espainiar ministerio publikoaren urteko txostena (2019ko iraila)

Fiskaltza orokorrak, ETA-ren disoluzioa eta bere armagabetze osoa aktatu du. Bere urteko txostenean talde disidente batek armen hartzeko arrisku minimo bat izango zela zehazten du.

Laburbilduz

Balantze gazi gozoa beraz, aitzina pausu oso garrantzitsuak baina noizbehinkakoak justiziako erabakiei dagokionez edo testuinguru politikoa beren erabakietan sartzen hasi berri diren epaile batzuen eskutik.

Baina jarrera arrunt izoztua mantentzen dute kondenen aplikaziorako epaileek. Alta, haiek beraiek bete beharko lukete paper hori.

Bilakaera arrunt paradoxazkoa da, izan ere, Terrorismoaren kontrako eta Audientziako hainbat magistraturengan sentitu da.

Audientzian, kondena arriskua oso handia denean, Euskal Herriko egoera politikoaren bilakaeraren inguruko eztabaidak oso garrantzitsuak izan dira eta magistratu batzuek interesa erakutsi dute.

Aldiz, Kondenen Aplikaziorako Terrorismoaren Kontrako Gorteetan (TAPAT) arrunt baliorik gabekoa izan da (Kondenen aplikaziorako terrorismoaren kontrako auzitegiaren hiru erabaki salbu, helegitea aurkeztu zaienak). Alta, kondenen aplikazioa, aurrera pausuen eremua izan behar litzateke eta bake prozesua kontutan hartzen den gunea izan behar litzateke.



4.

Lan eskema: triangulazioa eta gizarte zibilaren mobilizazioa

Bide orria: Baionako Adierazpena

Baionako Adierazpena* 2014ko urriaren 24an aurkeztu zen eta bertan Aieteko Konferentziak galdetu bezala, estatuei bake prozesuan konprometitzeko gomendioaren ildoan kokatzen zen. Hautetsiek, alderdi politiko ezberdinek eta sindikatuek sinaturiko dokumentu honek zenbait norabide nagusi finkatzen zituen : salbuespenezko neurrien bukatzea, pertsonen eskubideen aplikazio zorrotza, «Egia eta Berradiskidetze» batzorde baten sortzea eta berezko instituzio baten sortzea Ipar Euskal Herriarentzat; guzti hauek denen arteko elkarriketan oinarritu bake iraunkor baten bideratzeko gisan. Helburua «gatazkaren ondorioei» lotzea zen, hau da, presoak, erbesteratuak eta biktima guztiak.

Gizarte zibila, mobilizatzen den aktorea

Aieteko adierazpena eta ondotik Baionako adierazpena oinarritzat hartuz, gizarte zibila bake prozesuaz jabetu da eta honen aitzinamenduen aktorea da.

Etengabe bere konpromisoa eta bake prozesua bururaino eramatearen borondatea erakusten du, mobilizazio iraunkorren bidez, non beti batu dituen antolakunde eta elkarteetako jendeak, politikoak, sozialak edota eskualde honetako hautetsiak : Armagabetze eguna (Baiona 20000 pertsona), Orain Presoak (Paris 11000 pertsona), Orain Presoak (Baiona 9000 pertsona), Giza Katea (Biarritze 3000 pertsona). Bere helburua den elkarbizitza eraikitzeke, gatazkaren ondorio guztien inguruan etengabeko gogoetak eramateko tresna iraunkorrak sortu ditu (lan bilkurak, foroak).

* Gehigarriak



Triangulazio baten bidez sortu den elkarrizketa Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin(EPPK)

Elkarrizketa, ETA-ren armagabetze osoa ekarri duenaz inspiratu eta eraiki da. Horrela martxan emanen da Justizia Ministerioarekin elkarrizketa esparrua, triangulazioan, Ministerioak adostu duena Euskal Herriko delegazioarekin (bere osaketan hautetsi eta gizarte zibileko ordezkarien presentzia ziurtatuko da) baita Euskal Preso Politikoen Kolektiboarekin.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak parte hartu du esparru honetan bere bozeramaileak diren Marixol Iparragirre (berriki, 2019ko irailaren 4an espainiaratua izan dena) eta Mikel Albisurekin (2019ko urtarrilan espaniaratua eta libratua izan dena) bilduz , 11 aldiz Réau-ko presondegian.



5.

Erreferentzia kronologikoak

2017

Uztailaren 10a : Jendarte zibiletik eratorritako pertsonen delegazio bat Parisra joan zen Euskal Herriko bake prozesuaren aitzinarazteko asmoz, besteak beste euskal presoen gaia aipatuz. Zortzi hitz ordu lortu zituen exekutiboarekin (justizia ministerioa) eta botere legegilearekin (talde parlamentari ezberdinak eta Asanblada Nazionaleko lehendakari-ordea), baita giza eskubideen defentsarako hainbat erakunde independenteekin (Giza Eskubideei buruzko Aholku Batzorde Nazionala, Eskubideen Defendatzailea, Asatasunaren Pribazio-guneen Kontrolatzaile Orokorra) eta Magistratura Sindikatuarekin.

Urriaren 19a : Lan esparru bat irekitzen da Euskal Herriko ordezkartza bat eta Justizia Ministerioaren artean euskal presoen gaiari begira. Gaur egun arte 6 bilkura egin dira.

Abenduaren 9 : «Orain presoak, Maintenant les prisonniers» lelopean iragan zen manifestaldi handia Parisen 2017ko abenduaren 17an. Hamar mila pertsona baino gehiago bildu ziren han «Gatazka baino eztabaida eta mendekua baino etorkizuna eraikitzea nahiago duen jendarte baten oinarriak eraikitzeko».

Hitzordu hau baino lehenago ekimen ugari burutu zen. Euskal Elkargoak aho batez sinatutako sostengu mozio batetik mota guztietako mila hautetsi inguruk (horien artean IEHko 158 herrietatik 98 auzapez eta herriko kontseilari). Horiei beste inizatiba edo ekimen batzuk gehitu behar zaizkie : Bruselan eurodiputatuekin

bilkura bat, Ipar Euskal Herriko parlamentarien prentsaurrekoa, Réau-ko presondegian parlamentariak Marixol Iparragirre eta Mikel Albisurekin burututako bisita eta Parisko udalak adierazitako sostengu agiantza, besteak beste.



Aipa ditzagun ere artista batzorde batek antolatutako «Bakearen aldeko Luhusoko 12 orenak» eta jendeari gogoeta eta dinamika ekarri dion Euskal Herriko ipar zein hegoaldean antolatutako hamarnaka biltzar publikoak. Ipar Euskal Herriko eta Estatu frantses osoko ehun bat pertsona ezagunek babesa eta sostengua ekarri zioten manifestaldiari, informazio kanpainaren eraginkorra (afixak, esku-orriak, prentsan kanpaina...) bultzatuz eta autobus zein tren bereziak apailatuz. Abenduaren 9ko eguna, Invalides delako ordokian «Bakearen arriskua» izenburu gisa zuen dei ospetsu batekin bururatu zen.



2018

Urtarrilaren 11a: Ministerioaren bozera-maileak presoan lehen hurbilketen iragarpena egin zuen. Molde mailakatuak burutu dira, 2018ko otsailetik iraila arte, DPS estatutuaren (bereziki begiztatua den presoak) altxatzearekin. Guzti hau, 2018ko maiatzaren 3an, Genevan, ETA erakundea desagitzen zen testuinguruan.

Apirilaren 6, 7 eta 8an : Baionako Merkataritza eta Industria Ganberan (CCI) eta Miarritzeko Bellevuen, «Armagabetzearen ondoko urtea» gaiaren inguruan gogoeta sakona, Michel Berhocoirigoin, Bakegilea; Jean Pierre Massias, Trantsizio-Justiziako Elkarte Frankofonoko lehendakaria ; Julen Mendoza, Orereta/Errenteriako auzapeza ; Serge Portelli, Versaillesko Dei Gortean Ohorezko Magistratua ; Xantiana Cachenaute, euskal presoan abokatua; Anaiz Funosas, Bake Bidea elkarteko lehendakaria ; Jean-René Etchegaray, Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakaria eta Baionako auzapeza ; Jean-Noël Etcheverry, "Txetx", Bakegilea; Michel Tubiana, Giza Eskubideen Ligako Ohorezko Presidentearen parte hartzearekin. Apirilaren 8an polemika azkar bat sortu duen «Arbolaren egia» zizelanaren estreina Baionan.

Maiatzaren 3a : ETA erakundearen desagitea. Marixol Iparragirre eta Josu Urrutikoetxeak azken adierazpena irakurri zuen eta Genevan Nazioarte komunitatearen aitzinean aktatua izan zen.

Maiatzaren 4a : Arnagako Nazioarteko Topaketak ETArekin desagitea kontuan hartzen du. Nazioarteko Topaketa honen ostean Jonathan Powell, Cuauhtémoc Cárdenas Solórzano, eta Michel Camdessus-ek Arnagako Adierazpena irakurri zuten.



Azaroaren 22a : gizarte zibilak «Orain presoak» kanpainaren baitan Baiona eta Bilboko mobilizazioetara deitu zuen.

Abenduaren 14a: Euskal Herriko ordezkariak ordurarte Justizia Ministerioarekin ukandako elkarrizketen etena salatu zuen eta 2019ko urtarrilaren 12an mobilizatzera deia egin zuen.

2019

Urtarrilaren 5a : Urtarrilaren 12ko mobilizazioari sostenguz, hautetsien, Bakegileak eta Bake Bidearen prentsaurrekoa, Euskal Elkargoaren ordezkaritza zabal baten presentziarekin.

Urtarrilak 12: 85 000 pertsona mobilizatzen dira Bilbon eta Baiona (9 000) artean. Justizia Ministerioarekin elkarriketa berbiatu zen eta honek ondorioak ukan zituen : presoek hurbiltzeak eta DPS estatutuaren altxatzeak.

Maiatzaren 16a: frantziar poliziaren eskusartzea eta Josu Urrutikoetxearen arrastatzea. Urrutikoetxea, ETako militante historikoa, sasian zegoen azken 17 urteetan, eta bake prozesuan inplikaturik, Genevan 2018ko maiatzaren 3an erakunde armatuaren desegite adierazpenean parte hartu zuen.

Maiatzaren 17a: Biarritz bisitatu zuen Emmanuel Macron Frantziako Errepublikako lehendakariak eta bake prozesuaz honela mintzatu zen lehendabizikoz publikoan : "Azken urteak begiratzen ditudanean, kontsideratzen dut adibide bat dela gatazka baten konponbidean eta armagabetzean... Estatuaren betebeharra mugimendua laguntzea dela pentsatzen dut. Historia ez da errepikatu behar, lagundu behar da."

Ekainaren 7a: « Gure bizia elkarrekin erai ki » Topaketa Miarritzen Christine Taubira Frantziako justizia ministro ohiaren parte hartzearekin (bideo-dokumentu baten bidez), baita Brandon Hamber International Conflict Research Institute erakundeko zuzendaria, Asun Lasa (GALen biktima)

eta Iñaki Garcia Arrizabalagarekin (Komando Autonomo Antikapitalisten biktima baten semea).



Ekainaren 8a : 3 000 pertsonaz osatutako giza katea Miarritzen « Orain presoak » lelopean.

Uztailaren 5a : jendarte zibilaren izenean, hautetsi eta ordezkariak zaintza talde bat osatu zuten Baionako Euskal Elkargoaren egoitzan, duela 30 urte preso den Frédéric Harnambour «Xistor» -ek baldintzapeko askatasuna galderaren erabakia igurikatzen zuelarik. Azken hau 1990an atxilotua izan zen Frantziar, Jakes Esnal eta Ion Parotekin batera. Hiruak bizi osorako zigorrera kondenatuak izan ziren eta 30 urte preso direla. Unai Parot -lonen anaia- egun batzuk lehenago atxilotua izan zen Espainian, torturatua izan zen eta 30 urtera kondenatu zuten afera horretan, eta 11 urtera beste afera batentzat. Ondotik, hainbat pertsonalitateek* prentsaurreko bat eskaini zuten denek elkarrekin.

* Gehigarriak



6.

Ondorioa

Euskal Herriko Delegazioaren eta Frantziako Justizia Ministerioaren artean azken bi urteetan ireki den eztabaidarako espazioak aurrera pausuak ekarri dituzte. Nahiz eta egutegia uste baino geldoago doan, aitzinamendu azpimarragarriak izan dira (hurbilketak, Bereziki Seinalatutako Presoak (DPS) zerrenda horretatik ateratzea, epaile batzuen bilakaera baikorra argumentuetan...) eta erran daiteke salbuespeneko neurri batzuk alde batera utzi direla.

Badirudi Estatuak ez duela horretan gelditu behar. Frantziar autoritateek, Nicole Belloubet Justizia Ministroaren bidez, Bereziki Seinalatutako Presoen estatusei bururapena emateko borondatea erakutsi dute, presoak hiru presondegitan batuz. Euskal Herriko Delegazioak ez du gutxiago espero salbuespeneko neurrien kentzeari doakionez ! Are gehiago, irailan, baldintzapeko bi eskaerak Ministerio Publikoaren ezezko borobilari aurre egin behar izan diotenean (urriaren 8 eta 15eko erabakiak). Preso erien gaia problematikoa da ere. Aieteko Konferentziatik indar metaketa eta kontsentsu zabala lortu dira, eta konfiantza giro bat sortu da. Horren adierazle da 2014ko Baionako Adierazpena, benetako elkar bizitza bat aipatzen zuena. Konfiantza giroa indartu dute ere hainbat momentu konkretuk, horien artean, armagabetze eguna Baionan

eta ETaren desegitearen aldarria Kanbon.

Presoen eskubideen eta biktima guzien aitortzari begira, azken bi urte hauetan egin den lan garrantzitsuak, lurraldeko aktoreak elkarbizitza demokratikoa eraikitzeko jarreran eman ditu, ber mementoan gai direnak giblean uztea eta gainditzea istorio desberdinak, hauek gure memoria amankomunean bertakotuko direlarik.

Paisaia aldatu da beraz, bide orri berri bat segitu behar da. Protagonista guztiek (instituzioak, gizarte zibila, presoak...) parte hartu beharko dute ondoko etapan, eta gogoeta sakon bat eraman beharko da airean gelditu diren galderei behar zaien erantzuna emana izan dakien. Zein da aterabidea bake garaian presondegia ez dadin errealitate bat izan eta koadro juridiko baten baitan, askatasunerako perspektiba berriak ireki daitezen?

Nekeziekin, baina bake prozesua aitzina doa. Ez dago beste irtenbiderik tinko aurrera egitea baino, esperantzarekin, hautetsien aniztasunaren eta mugimendu sozialen arteko kohesioan. Urrunago eta azkarrago joan behar da orain gatazkaren ondorioen konponbide integral eta orokor bati buruz.





GEHIGARRIAK

1. Justizia ministeritzarekin sorturiko elkarrizketa esparrua.

Euskal jendartea bere osotasunean (hautetsiak, jendarte zibila) irudikatzen duten 22 pertsonako delegazio batek, Parisera eraman zuen 2017-ko uztailaren 10-an Euskal Herriaren ahotsa. Bake prozesuan aitzina joateko borondatea adierazi du delegazioak, Frantziar agintariek euskal presoen gaian duten inplikatzearen beharra azpimarratuz.

8 bilkura egin dira aginte exekutiboarekin (justizia ministroa), legegilearekin (talde parlamentari desberdinak eta Legebiltzarreko presidente ordea), baita ere giza eskubideen defentsan lan egiten duten erakunde independente batzuekin ere (Giza eskubideen aholku batzordearekin, eskubideen defendatzailearekin, askatasunik gabeko guneen kontrolatzaile orokorrarekin) eta magistraturaren sindikatuarekin.

Delegazioak ondorioztatzen du eguna oso baikorra izan dela entzunak izan baitira eta lanerako perspektibak aurreikusi baitituzte.

Euskal presoen gaia ez da euskaldunei dagokigun gaia soilik, hemendik aurrera Frantziar agintarien agendetan idatzirik agertzen da.

Delegazioaren osaketa :

ALAIN IRIART, Euskal Herriko Elkargoko Lehendakari ordea (Ehbai) eta Hiriburuko auzapeza; **ALICE LEICAGUEÇAHAR**, Akitania Berriako lurralde kontseilaria (EELV); **ANAIZ FUNOSAS**, Bake Bideako lehendakaria; **ANNE MARIE MICHAUD**, CDDHPBko ordezkaria Bagoaz kolektiboan; **EMILIE DUTOYA**, Akitania Berriako lurralde kontseilaria (PS); **EMILIE MARTIN**, Bagoa kolektiboko kidea; **FLORENCE LASSERRE- DAVID**, Pirineo Atlantiketako Deputatua (Modem); **FRÉDÉRIQUE ESPAGNAC**, Senataria eta Akitania Berriako lurralde kontseilaria (PS); **GABI MOUESCA**, OIP-ko lehendakari ohia; **JEAN FRANÇOIS LEFORT**, Sorturen ordezkaria Bagoaz kolektiboan; **JEAN LASSALLE**, Pirineo Atlantiketako diputatu independentea; **JORGE GARCIA SERTUCHA**, Etxeratego kidea; **JEAN-JACQUES LASSERRE**, Senatorea eta Departamenduko kontseiluko lehendakaria (Modem); **JEAN-RENÉ ETCHEGARAY**, Euskal Herriko Herri Elkargoko Lehendakaria eta Baionako auzapeza (UDI); **LOUIS JOINET**, Kasazio gorteko abokatu nagusi goren ohia da; **LUCIEN BETBEDER**, Auzapezen Biltzarreko Lehendakaria; **MAX BRISSON**, Departamendu kontseiluko lehendakari ordea (LR); **MICHEL BERHOCOIRI-GOIN**, Bakegilea; **MICHEL TUBIANA**, Giza Eskubideen Ligako Ohorezko lehendakaria eta Bakegilea; **MICHEL VEUNAC**, Euskal Herriko Elkargoko lehendakari ordea, Akitania berriako lurralde kontseilaria eta Miarrizteko auzapeza (Modem); **SERGE PORTELLI**, Versailleseko dei Ganberako epailea; **URTZI ERRAZKIN TELLERIA**, Etxeratego kidea; **VINCENT BRU**, Pirineo Atlantiketako Deputatua (Modemeri lotua).



2. Baionako Adierazpena

Frantziako Euskal Herriko elkarrizketa taldea

2011ko urriaren 17an, Aieteko Nazioarteko Konferentzia egin zen Donostian. Konferentziaren bukaeran "Aieteko deklarazioa" izenpetu zuten nazioarteko gatazken konponketa lanetan diharduten hainbat buruzagik.

Frantziako Euskal Herriko hautetsi edota alderdi baten ordezkari garenok onespena eman diegu, bakoitzaren izenean ala gure alderdien izenean, Aieteko deklarazioari bai eta honek biltzen dituen puntuei ere, testu horrek balio zuelako trantsiziozko bide orri gisa bakerako bidean. Horrek bultzatu gaitu elkarren arteko lan baten eramatera Aietez geroztik, 2011ko urriaren 20an ETA-k eman zuen su etenaren ondorioz hasitako bake prozesuari ekarpen baten egiteko gure engaiamendu azkarraren bidez.

Elkarrizketa prozesu horretan, Aieteko deklarazioan aurkitzen ziren puntuak garatu ditugu eta bake prozesuari ekarpen geniokeenaz gogoeta bat eraman dugu. Hemen aurkezten dugun dokumentuan puntu ainitzetan lortu dugun adostasuna nabaritzen da. Proposamenak ere ekartzen ditu, gure ustez Frantziako Euskal Herriko jendar-tean onarpen zabala lor lezaketenak.

Gure nahia bidean den prozesuari ekarpen baikor baten egitea da, elkarbizitzaren alde neurrien hartzeko egiazko aukeren argitara ekartzea eta bake iraunkor baten oinarri sendoen abiatzea Euskal Herri osoan.

a) Frantziako gobernu eta ETArekin arteko elkarrizketa.

Gatazkaren konponketan Frantziaren parte hartzea beharrezkoa izanik, Frantziako gobernuak ETArekin elkarrizketaren partaide izan behar du. Lehen denbora batean, eta elkarrizketak ahal bezain ongi pasa daitezzen, maila pribatu batean egingen dira. Aur-rerapauso nabarmenak emanak izanen direnean, orduan maila publiko batera pasa daitezke.

Ondoko puntuak aipa daitezke elkarrizketa prozesu horretan:

› Gaurko marko juridikoaren barnean eta Giza eskubideak errespetatuz hartu daitezkeen neurriak :

- Auziperatuak izan diren preso guztien bai eta auziaren zain diren presoek hur-bilketa, elkartzeko eta preso sartua den pertsonaren eskubideen salbuespenik gabeko aplikazioa.

- Baldintzapeko edo behin-behinekoaskatasun neurriak ukan ditzaketen pertsonen libratzea, eri diren edota kondena bukatzearen duten presoek ere.

- Presoen ber gizarteratze plan bat (lana, etxebizitza, erretretarako laguntzak...) Erakunde publikoek apailaturik.



› Adostasun politikoa eta marko juridiko berria eskatuko duten neurriak :

- Instantzia berezitu baten sorrera, ondoko auziak trinkatzeko:
- Kondena ukana duten baina baldintzapeko askatasun neurririk eska ez dezaketen preso askapenerako baldintzak bai eta auziaren zain baina behin-behineko libratzea lortzen ahal ez dutenenak ere
- Errefuxiatuek beraien bizilekuaren libreki hautatzeko eskubidea
- Prozedura polizial eta juridikoen gelditzea ETA-ko militanteen aurka eta hauen egokien ikertzea kasuz kasu
- Delitu politikoen kentzea Euroaginduen aplikaziotik.
- Euskal gatazkari loturik dauden kasuetan Euroaginduen aplikazioan derogazio sistema bat sortzea
- Epe luzean amnistia lege baten sortzea euskal gatazkari loturik dauden kasuentzat.

› ETAREN jardun armatuaren bukaerari lotutako neurriak :

Nazioartean kontrolpean Frantziako gobernu eta ETAREN arteko akordioa, Frantzian ETA-ko azpiegiturak nola desegin eta desarmatu argituko dituzten baldintza eta egin moldeen definitzeko eta bururaino eramateko.

b) Gatazkaren ondorioak eta berradiskidetzea

“Egia eta berradiskidetzea” motako berezilar talde bat sortu behar litzateke, gatazkari lotutako gertakariak argitzeko, biktima guztien sufrikarioaz ezagupen orokorra bermatzeko eta xuxentze/ordaintze bide ezberdinen definitzeko (soziala, ekonomikoa...). Berradiskidetze arazoa aipatu behar litzateke bake prozesuaren hasieratik eta prozesuan inplikatuak diren aktore bakoitzaren erritmoak errespetatuz. Prozesu horretan gobernuen engaiamendua nahitaezkoa izan da.



c) Frantziako Euskal Herriaren kuadro juridiko, politiko eta instituzionala.

Frantzia mailan, deszentralizazioaren legearen 3. urratsak eztabada ideki du eta Frantziako Euskal Herriarendako koadro instituzional egokiena definitzeko aukera eman du: estatutu bereziko lurralde kolektibitatea.

Lurralde kolektibitatearen proposamenak adostasun politiko zabala eta jendartearen inplikazio azkarra lortu ditu. Institutuzioen antolaketaren arloan lege aldaketa garrantzitsua oraindik etortzekoak direlarik, gaur egun beste aukera batzuk ere eztabaidatzen ari dira.

Hala izanik ere, Frantziako Euskal Herriari marko instituzional berezi baten ematea bake iraunkorra bermatzeko etapa baikorra izanen da.

2014ko urriaren 24ean, Baionan izenpetua

Izenpetzaileak :

JEAN-RENE ETCHEGARAY, Baionako auzapeza (alderdi zentrista); KOTTE ECENARRO, Hendaiaiko auzapeza eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko lehendakari ordea (PS); MAX BRISSON, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko kidea, Miarritzeko herri hautetsia; FREDERIQUE ESPAGNAC, Pirinio Atlantikoetako senataria (PS); JEAN-JACQUES LASSERRE, Pirinio Atlantikoetako senataria, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko kidea eta Hautetsien Kontseiluko lehendakaria (alderdi zentrista); XABI LARRALDE, Sortuko arduraduna Ipar Euskal Herrian; JAKES BORTAYROU, Abertzaleen Bata-suneko arduraduna; MICHEL LARRALDE, CFDT Euskal Herriko idazkari nagusia; JEAN LISSAR, Europa Ekologia Berdeak (EELV) Euskal Herriko bozemailea; MARC OXIBAR; JEAN-PIERRE ETCHEVERRY, CFDT Euskal Herriko idazkaritzako kidea .

3. 2019ko uztailaren 5a.

Jendarte zibilaren izenean, hautetsi eta ordezkariak zaintza talde bat osatu zuten Baionako Euskal Elkargoaren egoitzan, duela 30 urte preso den Frédéric Harnamboure «Xistor» -ek baldintzapeko askatasuna galderaren erabakia igurikatzen zuelarik. Ondotik, hainbat pertsonalitateek prentsaurreko bat eskaini zuten denek elkarrekin :

Parte hartzaileen zerrenda:

JEAN-RENE ETCHEGARAY, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria eta Baionako auzapeza; KOTTE ECENARRO, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari ordea ; ALAIN IRIART, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari ordea; MICHEL VEUNAC, Biarritzeko auzapeza, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari ordea eta Akitania Berria eskualdeko kontseilaria (Modem) ; VINCENT BRU, diputatua (Modem); FREDERIQUE ESPAGNAC, senataria (PS); MAX BRISSON, senataria (LR); LUCIEN BETBEDER, Auzapezen Biltzarreko lehendakaria eta Lekorneko auzapeza ; ALICE LEICAGUECAHAR, Akitania Berria lurraldeko kontseilaria (EELV); EMILIE DUTOYA, Akitania Berria lurraldeko kontseilaria (PS); MICHEL TUBIANA, Giza Eskubideen Ligako lehendakari ordea (bideo konferentziaz) ; MICHEL BERHOCOIRIGOIN, Bakegilea. .



Dokumentuaren egileak:



Gurekin harremanetan sartzeko:
www.bakebidea.com
bake.bidea@gmail.com

